

# GINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA

ARANGUREN IBARREKO UDALAREN INFORMAZIO BULETINA

MAIATZA 2019 / 46. ZK.

## Nabarmentzekoak...

### BERDINTASUNA

#### ▶ SENTSIBILIZAZIO-KANPAINA "JAIETAN ERRESPEZU BIZI GARA"

- Ekainak 19: Mutiloako jaien hasiera.
- Autodefentsa feministari buruzko tailerra.

### ENPLEGU PLANA

#### ▶ LAN AURREKO TAILERRA:

- Hiri altzairuen mantenimendu eta pintura ikastaroa.

### HAURTZAROA ETA FAMILIA

#### ▶ ARANGUREN IBARREKO IKASLEENTZAKO LAGUNTZA DEIALDIAK

#### ▶ "JOAN TA ETORRI 2019" PROGRAMA

- Tailerra gurasoentzat: "gauzak argi izan ditzagun drogez hitz egiteko".
- Tailerra 16 eta 18 urte arteko gazteentzat: "Banoa parrandara".

### INTERESATZEN AHAL ZAIZU

#### ▶ GOBERNUAREN LAGUNTZAK FAMILIA UGARIENTZAT

#### ▶ HITZARMEN BEREZIA GIZARTE SEGURANTZAREKIN MENPEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEN ZAINZAILA EZ PROFESIONALENTZAT

### BESTE ZERBITZUAK

- ▶ LAN POLTSA
- ▶ MATERIAL ORTOPROTESIKOA MAILEGUAN UZTEKO ZERBITZUA
- ▶ BELAUNALDI ARTEKO ETXEBIZITZA ARLOKO BITARTEKARITZA ZERBITZUA

### ZERBITZU BERRIAK

- ▶ ARANGUREN IBARREKO UDALAREN BERDINTASUN ZERBITZUA
- ▶ ARANGUREN IBARREKO EMAKUMEENTZAT ETA FAMILIENTZAT AHOLKULARITZA JURIDIKORAKO ZERBITZUA



MUTILOA PLAZA Z/G – MUTILOA  
ORDUTEGIA: ASTELEHENETIK  
OSTIRALERA  
9:00ETATIK 14:00ETARA  
TEL: 948151382

# BIZI JAIK BERDINTASUNEAN



*Azkenik uda dator eta berekin batera, gure udalerriko, Aranguren Ibarreko, herrietako jaiak.*

*Mutiloako jaiekin hasiko gara, non jai hasiera ekainaren 19an izanen den, asteazkena, 20:00etan.*

Aranguren Ibarreko Udalak beste behin bat egingen du Nafarroako Gobernuak, zaindarien jaien testuinguruan Nafarroako Berdintasun Institutuaren bidez egiten duen sentsibilizazio kanpainarekin: "BIZI JAIK BERDINTASUNEAN"

Aurtengo kanpainaren helburua jaien testuinguruan ematen ahal diren eraso sexistak saihestea da, modu horretako inolako portaerak ez onartuz.

"BIZI JAIK BERDINTASUNEAN" da aurtengo lema, emakumeek jai giroan jasaten dituzten erasoekin kontrari herritarrek sentsibilizatzea du helburu.

Kanpainaren ardatza Berdintasuna da eta emakumea jai giroan ikustarazi nahi du, jaiaz gozatzeko eta emakume izateagatik inolako diskriminaziorik gabe bizitzeko duen eskubidea azpimarratu.

Azkenik, herritarrengan, gizon zein emakumeengan, gaitzespen portaerak sustatu nahi ditu.

Zentzu horretan, Herri Administrazioak ezberdintasunaren arrakala gairatzeko lagungarri izan daitezkeen arlo guztietan lan egiten ari dira, hori baita emakumeenganako indarkeriaren jatorria. Zehazki, ezin dugu onartu jazarpena jai giroko portaera normala izatea edota aisialdiko edo jaietako kulturaren txertatzea.

Beraz, emakume zein gizonen jaiak berdintasunean gozatzeko dugu helburu. Emakume guztiak espazioak galdu gabe eta beldurrik sentitu gabe gozatzeko aukera izan dezatela.

Kanpaina honekin bat egiteko esku gorriaren pina jarri dezakezu, emakumeenganako jai giroko indarkeriaren gaitzespenaren ikurra. Aranguren Ibarreko herri nagusien jaietako lehen egunean banatuko dira, informazio guneetan. ZURE ZAIN EDUKIKO GAITUZU!!

**"Bizi jaiak Berdintasunean"**

## AUTODEFENTSA FEMINISTARI BURUZKO TAILERRA

Norentzat: 14 urtetik gorako emakumeentzat.

Datak: **2019/05/31 ostirala:** 16:30-20:30 / **2019/06/01 larunbata:** 09:30-13:30.  
Aranetxea: Doakoa. Emaila: Endara.

IZEN-EMATEA: MAIATZAREN 23TIK 26RA. 948 23 75 58. ARANETXEA@HOTMAIL.COM. ARANETXEAN BERTAN



## BERRIA

▶ Aranguren Ibarreko Udaleko OGZ Informazio Buletina posta elektronikoz jaso nahi baduzu, [msanpedro@aranguren.es](mailto:msanpedro@aranguren.es) helbidera mezu bat idatziz eskatu dezakezu. Adierazi itzazu izena, abizenak, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa, non Buletina jaso nahi duzun.

## LAN-AURREKO TAILERRA

### HIRI ALTZAIUEN MANTENIMENDU ETA PINTURA IKASTAROA 50 ordu teoriko-praktikoak



Aranguren Ibarrean erroldaturik eta 18 urte baino gehiago dituzten pertsonentzat (16 urte baino gehiagokoentzat beren aita/ama edo tutorearen baimena badute). Parte hartu ahal izateko langabezian egon beharra dute; beti ere, Aranguren Ibarreko lan poltsan alta emana badute eta indarrean badaude.

Lehentasuna izanen dute aurreko baldintzak bete eta Enplegu Planetik eskainitako tailerrik egin ez duten pertsonak, baita Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan lehentasunekoak direla uste direnek ere.

**Data:** uztailak 15etik 26ra, biak barne.

**Behin taldea beteta, itxaron zerrendan beste talde bat osatzeko pertsona kopuru nahikoa geldituko balitz, hurrengo txanda hori abuztuaren 19tik 30era izango litzateke, biak barne.**

**Orduetgia:** 7:30etik 12:30era, astelehenetik ostiralera.

**Lekua:** Aranguren Ibarreko leku ezberdinetan emango da.

**Emalea:** Javier Elurbide.

**Plazak:** Txanda bakoitzak gehienez 8 pertsona izango ditu.

**IZEN EMATEA:** ekainak 24 eta 25. 948.012.012 telefonora deituaz, 8:00etatik 19:00etara.

### Hurtzaroa eta familia

#### 2018-2019 IKASTURTEAN HAPPY SCHOOL PROGRAMAKO PARTE-HARTZAILEENTZAKO DEIALDIA



2018-2019 ikasturtean zehar Happy School programan parte hartzen ari diren ikasle guztiek diru-laguntza eskaera aurkeztu ahal izango dute Aranguren Ibarreko Udaleko Erregistro Orokorrean (deialdiko oinarriak udaletxean bertan jaso daitezke).

Laguntza hau eskatzen duten ikasleek **Ibarrean erroldatuta egon beharko dute.**

**ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA:** 2019ko ekainaren 7an bukatzen da, ostiralarekin, 14:00etan.

#### 2018-19AN HIZKUNTZAREKIN HARREMANA DUEN ELKARTRUKE EDO ESKOLA JARDUERAREN BATEAN PARTE HARTU DUTEN ARANGUREN IBARREKO IKASLEENTZAT LAGUNTZA DEIALDIA



Deialdi honen xedea da 2018/19 ikasturtean zehar hizkuntzarekin harremana duten elkartrukeetan parte hartu duten DBH 4. mailara arteko ikasleei garraiorako eta bertako jardueretarako (bisitak, museoak, monumentuak...) laguntzak ematea da.

Deialdiaren oinarriak Aranguren Ibarreko Udaletxean jaso daitezke.

**ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA:** 2019ko irailaren 6an, ostiralean, 14:00etan.

## “JOAN TA ETORRI 2019” PROGRAMA



- Trafiko istripuek alkohola eta drogak kontsumitzearekin duten loturari buruzko informazioa emateko eta jendea sentsibilizatzeko.
- Helburua da, batetik, trafiko istripuen kopurua jaitea, eta bestetik, familiak zein gazteak kontzientziatzea norberak alkoholaren eta drogen kontsumoaren kontrolean duen erantzukizunaz.

**JARDUERAK:** Autobus-zerbitzua herriko festa hauetara joateko: Mutiloa, Gares, Lizarra, Aranguren, Agoitz, Tafalla, Labiano, Taxoare eta Zolina.

HERRIAK	DATA JAIK	JOATEKO ORDUTEGIA	ITZULTZEKO ORDUTEGIA
MUTILOA	Ekainak 22 Larunbata	00:30	07:00
ZOLINA	Uztailak 26 Ostirala	00:30	06:00
GARES	Uztailak 27 Larunbata	23:00	07:00
LIZARRA	Abuztuak 3 Larunbata	23:00	07:00
ARANGUREN	Abuztuak 9 Ostirala Abuztuak 10 Larunbata	00:30	07:00
AGOITZ	Abuztuak 10 Larunbata	23:00	07:00
TAFALLA	Abuztuak 17 Larunbata	23:00	07:00
LABIANO	Abuztuak 24 Larunbata	00:30	07:00
TAXOARE	Irailak 6 Ostirala	00:30	07:00


### 16 eta 30 urte arteko gazteentzat

**TXARTEL SALMENTA:** Erroldatuendako txartelak aldeztu aurretik salduko dira. Arantxean egonen dira salgai, astelehenetik ostegunera. Ostiraletan erroldatu gabeentzat ere salduko dira. Orduetgia: 11:00-14:00 eta 19:00-22:00.

**OHARRAK:** autobus txartela erosteko, NANA aurkeztu beharko da, eta zalantzarik badago, Aranguren Ibarreko erroldatze-agiria. Adingabeek autobus-zerbitzua erabiltze aldera, gurasoek edo tutoreek baimen idatzia aurkeztu beharko dute ARANETXEAN, hau da, Aranguren Ibarreko Gazteriaren Etxean. Familiak informazio-gutun bat jasoko dute etxean, baimena barne.

**GELTOKIAK:** Mutiloa (Santxiki / Eroski) (San Pedro I.P). Aranguren, Labiano, Taxoare edo Zolinatik atera nahi izanez gero, jarri harremanetan antolakuntzarekin

## TAILERRAK HEGOAK ELKARTEAREKIN



### 1. Gurasoentzat:

#### “Gauzak argi izan ditzagun drogez hitz egiteko”

Alkohola eta drogak kontsumitzearekin lotuta dauden arazoei aurrea hartzeko eta arriskuak nahiz kalteak murrizteko tailerra.

**Eguna:** ekainak 12, asteazkena.

**Ordua:** 19:30- 21:30.

**Lekua:** Arantxean.

**IZEN-EMATEA:** doakoa Arantxean, edo 948 237 558 telefonon, ekainaren 3tik 9ra.



### 2. 16 eta 18 urte arteko gazteentzat:

#### “Banoa parrandara”

Alkohola eta drogak kontsumitzearekin lotuta dauden arazoei aurrea hartzeko tailerra.

**Eguna:** ekainak 14, ostirala.

**Ordua:** 18:00.

**Lekua:** Arantxean.

**IZEN-EMATEA:** doakoa Arantxean, edo 948 237 558 telefonon, ekainaren 3tik 9ra.

Aranguren Telebistan, sare sozialetan eta autobusetan beretan, gainera, Aranguren Ibarreko Udaleko “Joan ta Etorri 2019” programari buruzko informazio-bideoak emanen dira.

## Nafarroako Gobernuaren 2019ko laguntzak familia ugariarentzat, ezohiko gastu hauetarako: entzumen protesiak, preskripzio optikoak, ortopedia eta ortodontzia

### AURKEZPEN EPEA: 2019-02-27TIK 2019-10-15ERA.

#### Norentzat:

2019an gastu horiei aurre egin behar dieten familia ugarien kideentzat, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Familia **ugariaren txartela indarrean** izatea laguntza eskatzen denean.
- Laguntzarako kontuan hartzen diren familiako kide guztiak Nafarroan erroldatuta egotea eta benetako bizilekua Nafarroan izatea, bi urteko antzinatasunarekin, gutxienez.
- Familia ugariaren txartelean ageri diren familiako kideak elkarrekin bizi direla frogatzea.
- Familia-unitatearen per capita errenta gehienez 13.848,22 euro izatea. Hauxe hartuko da familia-unitatearen per capita errentatzat: familia ugaria osatzen duten kide guztien pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga-oinarriaren zati orokorra, kasuan kasuko zergaldikoa, zati familia ugariako kideen kopurua.

#### ARGIBIDEAK

Esteka honetan:

[http://www.navarra.es/home\\_es/Servicios/ficha/7942/Ayudas-a-familias-numerosas-para-gastos-extraordinarios-de-protesis-auditivas-prescripciones-opticas-ortopedia-y-ortodoncia](http://www.navarra.es/home_es/Servicios/ficha/7942/Ayudas-a-familias-numerosas-para-gastos-extraordinarios-de-protesis-auditivas-prescripciones-opticas-ortopedia-y-ortodoncia)

#### NON AURKEZTU:

Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordeztako erregistroan: Erletokieta k/ 1. 31007 IRUÑA Aranguren Ibarreko Udalaren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan.

## Hitzarmen berezia gizarte segurantzarekin menpekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzaile ez profesionalentzat

Menpekotasunaren legearen onuradunen zaintzaile ez profesionalak apirilaren 1etik aurrera Gizarte Segurantzarekin hitzarmen berezia sinatu dezakete 2013tik gertatzen ari zen bezala kotizaziorik ordaindu gabe.



#### HARTZAILEAK:

Menpekotasun egoeran dagoen pertsona baten zaintzaile ez profesionalak, Arreta Indibidualaren Programan horrela izendatuak izan badira eta menpekotasunaren sari ekonomikoaren onarpena egiaztatzen bada.

Sinatu ahal izateko zaintzaileak ezingo du Gizarte Segurantzako edozein erregimenetan altan egon denbora osoz, ezingo du langabezian egon edota ezingo ditu zenbait prestazio jaso.

#### NON SINATU:

Eskaera Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrean aurkeztu behar da, bertan horretarako eskaera orria dago. Egoitza elektronikoa ere eskatu daiteke "Hitzarmen Berezian Alta" zerbitzua erabiliz.

**INFORMAZIO GEHIAGORAKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZURA JO DEZAKEZU EDO ONDORENGO TELEFONORA DEITU: 948 15 13 82**

## LAN POLTSA



Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan Lan Poltsa bat daukagu Aranguren Ibarrean erroldatuta daudenentzat.

#### EGINKIZUNAK:

Curriculumak biltzeaz gain, interesa duena Lan Poltsako datu-basean sartzen dugu. Enpresen eta partikularren enplegu-eskaintzak jasotzen ditugu.

#### NORENTZAT:

Aranguren Ibarrean erroldatutako langabeentzat edota enplegua hobetzeko egoeran daudenentzat. Langileak behar dituzten enpresa eta partikularrentzat.



#### NOLA EMAN IZENA:

- ARANGUREN IBARREKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZURA JOAN BEHARRA DAGO (UDALETXEKO 1. SOLAIRUA).
- CURRICULUM VITAE EGUNERATUA EKARRI BEHARKO DU, BAI ETA ENPLEGU ESKARI EDO ENPLEGU HOBEKUNTZAREN TXARTELA ERE.

## MATERIAL ORTOPROTESIKOA MAILEGATZEKO ZERBITZUA

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak material ortoprotesikoa aldi baterako mailegatzeko zerbitzua dauka erroldatuen eskura.

Hona hemen materiala: gurpil-aulkiak, dutxarako aulkiak, bainuontzietarako jarlekuak, ibiltzeko gailuak, makuluak eta bastoiak.



ARGIBIDEETARAKO, JOAN OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZURA BERTARA EDO DEITU 948 15 13 82 TELEFONORA

## BELAUNALDI ARTEKO ETXEBIZITZA ARLOKO BITARTEKARITZA ZERBITZUA (SIR): GURUTZE GORRIKO ZERBITZU BERRIA NAFARROAKO GOBERNUAREKIN ELKARLANEAN



Esperientzia berriak bizitzeko prest bazaude, 60 urte baino gehiago badituzu eta konpainian bizi nahi baduzu, edo 35 urtetik beherakoa bazara eta independizatu nahi baduzu, Zerbitzu hau zure interesekoa izan daiteke.

INTERESA BADUZU, DEITU 948 20 64 42 TELEFONORA EDO IDATZI MEZU ELEKTRONIKOA [sirnavarra@cruzroja.es](mailto:sirnavarra@cruzroja.es) HELBIDERA EDO JOAN Aralar k/ 2-4, Behera

BI ZERBITZU BERRI...

## ARANGUREN IBARREKO UDALAREN BERDINTASUN ZERBITZUA

Aranguren Ibarreko Berdintasun Zerbitzua martxan dago.

Lan-ildo hauek landuko ditugu:

- Toki gobernamentua eta genero zeharkakotasuna.
- Emakumeen kontrako indarkeriak.
- Zaintza, erantzunkidetasuna, eta eginkizunak bateratzea.
- Emakumeen ahalduntzea, parte-hartze soziopolitiko eta balioen aldaketa.



EDOZER GAUZATARAKO, JARRI HARREMANETAN GUREKIN:  
[igualdad@aranguren.es](mailto:igualdad@aranguren.es) 948 15 13 82  
JENDAURREKO ORDUTEGIA: 09:00-14:00

**LASTER ZURE PARTE HARTZEA BEHARKO DUGU... IBARREKO EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUN DIAGNOSTIKOA EGITEN ARI GARA.**

## AHOLKULARITZA JURIDIKORAKO ZERBITZUA EMAKUME ETA FAMILIENTZAKO, ARANGUREN IBARREAN



Aranguren Ibarreko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan zerbitzu berri bat antolatzen ari da, Aranguren Ibarrean erroldatutako gizon-emakumeei arreta, aholkularitza eta orientabidea emateko, halaxe eskatzen badute, hainbat gai eta egoeraren inguruan, betiere: premia juridikoak, bazterkeria egoerak, eta bereziki, tratu txarrak eta/edo sexu-erasoak gertatzen direnean.

Gai horietan aditua den abokatu emakumezko batek emanen du aholkularitza, emakumeak arloz arlo pairatzen duen bazterkeriarekin lotutako gaietan informazioa eskaintzeko (gizarte, lan eta ekonomia arloan; arlo penal, zibil eta administratiboan).



AHOLKULARITZA BANAN-BANAN EMANEN DA, ETA DOAKOA IZANEN DA.  
JENDEARI ARRETA EGITEKO GELA ARANGUREN IBARREKO UDALETXEKO LEHEN SOLAIRUAN DAGO.  
HEMENDIK GUTXIRA, ARRETA-EGUNARI ETA ORDUTEGIARI BURUZKO ARGIBIDEA EMANEN DUGU.



### ARANGUREN IBARREKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA

Mutiloa plaza z/g, Mutiloa (Aranguren Ibarra)  
ORDUTEGIA: astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara  
Tel. 948 15 13 82 eta [www.aranguren.es](http://www.aranguren.es)



Aranguren Ibarreko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren INFORMAZIO BULETINA posta elektronikoz JASO NAHI BADUZU, eskatu ezazu hurrengo postan: [msanpedro@aranguren.es](mailto:msanpedro@aranguren.es)

Jarrai gaitzazu:



[Aranguren Ssb](#)



ArangurenTelebista  
ArangurenTelevision

Aranguren Telebistan